



Astigarragako Irigoien-Herrerok irabazi zuen eta Hernaniko Zelaia eta Alzueta jarri ziren ohorezko postuetan.

Inoiz baino partaidetza handiagoa

Gipuzkoako 35 sagardok hartu zuten parte VII. Sagardo Lehiaketan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren VII. Sagardo Lehiaketak partaidetza errekorra hautsi zuen. 35 sagardogilek aurkeztu zituzten beraien sagardoak, inoiz baino gehiagok. Astigarragako Irigoien-Herrerok eskuratu zuen txapela eta Hernaniko bi sagardo-ekoizle, Zelaia, bigarren, eta Alzueta, hirugarren, jarri ziren ohorezko postuetan.

Urtean zehar egiten den sagardo lehiaketa garrantzitsuenak, hots, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duenak, zazpi edizioetako azkenekoa izan zuen partaide kopururik handiena. Guztira 35 sagardogile, herrialdeko 15 herritatik etorriak: Astigarragatik 9, Hernanitik 8, Usurbildik 4, Urnietatik 3, Donostiatik 2 eta Aduana, Andoaia, Ataun, Irun, Ikaztegieta, Oiartzun, Tolosa, Zarautz eta Zeraindik bana.

2007ko edizioak 30 sagardo-ekoizleren partaidetza izan zuen eta ordura arteko arrakastatsuen izan zen, baina urtebete aurrerago errekor hori hautsi egin zen 35 sagardo-ekoizle aurkeztu baitziren. Datu horrek agerian uzten du zenbateko garrantzia hartu duen, urtez urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen

sagardo lehiaketak, kontuan hartu behar baita 59 sagardo-ekoizle daudela Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen erregistratuta eta beste 3 Taldea Elkartearen. Beraz, lehiaketan parte hartu zuten erdiak baino gehiago izan ziren, eta Gipuzkoako herrialde osoak gainera.

Lehiaketa hau Gipuzkoako enpresa sagardogileei zuzentzen zaie, zeintzuek sagardo naturala ekoizti eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan erregistratuak egon behar duten. Botilako sagardo naturala baloratu eta saritzea da lehiaketaren helburu nagusia. Balorazio hori ikuspuntu organoleptikotik eta analitikotik egiten da eta kontuan hartzen da edari hori "txotx" bidez ez ezik botilan hartzen dela urte osoan zehar. Aurkeztutako

sagardoek analisi bat gainditu behar dute bigarren fasera igarotzeko, lehenengo aldiz aritu zen sagardoak dastatzeko eta epaitzeko. Epaimahai hori hamar lagunek osatu zuten. Haien artean, sagardoaren munduan lan egiten duten enologoak, dastatze lanetan adituak eta beste. Hauexek izan iren hamarrak, Presen Urkizu, Kristina Gofí, Domingo Arina, Xabier Kamio, Guillermo Castañes, Iñaki Santos, Dominic Lagarde, Ion Orbegozo, Jokin San Sebastian eta Iosu Osa.

Azken edizioan, Astigarragako Irigoien-Herrero, Hernaniko Zelaia eta Alzueta, Donostiako Kalonje, Tolosako Isastegi eta Usurbilgo Saizar izan ziren sei finalistak eta, finalean egindako bi botazioen ondoren -lehenengoan, bigarren posturako berdinketa hirukoitza izan zen-, Irigoien-Herrerok jantzi zuen txapela eta bi hermaniarrek, Zelaia eta Alzueta, bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituzten.

Dastatzeko epaimahaian nobedade aipagarri bat ikus ziteke-

en VII. edizioan. Sumiller bat, Presen Urkizu, lehenengo aldiz aritu zen sagardoak dastatzeko eta epaitzeko. Epaimahai hori hamar lagunek osatu zuten. Haien artean, sagardoaren munduan lan egiten duten enologoak, dastatze lanetan adituak eta beste. Hauexek izan iren hamarrak, Presen Urkizu, Kristina Gofí, Domingo Arina, Xabier Kamio, Guillermo Castañes, Iñaki Santos, Dominic Lagarde, Ion Orbegozo, Jokin San Sebastian eta Iosu Osa.

Lehiaketako palmaresean sei irabazle bildu dira zazpi urteotan. Batek, Aduako Zabalak, bi txapela lortu ditu (2004 eta 2006) eta Ikaztegieta Begiristain (2002) eta Astigarragako Gartzategi (2003), Gurutzeta (2005), Mendi-zabal (2007) eta Irigoien-Herrerok (2008) bana.

- Urtarrilaren 23 ostiraletik aurrera txotx garaia zabalik.
- Asteartetik larunbatera arte gauez.
- Larunbat eta igande egardietan.
- Jangelan berogailua.



SALMENTA sagardotegian bertan eta ebexez etxe.

Tel. 943 55 27 44

URNIETA

Uda honetan jan ezazu sagardo-menua gure terrazan



102 Meaka Auzoa · 20304 IRUN · Tel. 943 623 130